

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

UDALBATZAREN IDAZKARITZA NAGUSIA

“Luis Aranburu” Udal Musika Eskola erakunde autonomoaren estatutuen aldaketaren behin betiko onespena

Vitoria-Gasteizko udalbatzak 2023ko apirilaren 21ean egindako ohiko bilkuran hasierako onespena eman zion “Luis Aranburu” Udal Musika Eskola erakunde autonomoaren estatutuen aldaketari.

Erabaki horren jendaurreko erakustaldian (2023ko maiatzaren 8ko ALHAO, 53. zenbakia) erreklamazio eta iradokizunik aurkeztu ez denez, behin betikotzat jotzen da behin-behineko erabakia, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. artikulua ildotik.

7/1985 Legearen 70.2 artikuluan aurreikusitakoa betez, testu guztia argitaratzen da, indarrean sartzeko baldintza gisa.

Behin betikotzat jotzearen kontra, administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkeztu ahal izango da Euskal Herriko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salaren aurrean, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 10.1. b) eta 46.1 artikuluen ildotik, bi hilabeteko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik, egokitzen jotzen den beste edozein aurkezteko aukera gorabehera.

Vitoria-Gasteizen, 2023ko uztailaren 18an

Alkatea

MAIDER ETXEBARRIA GARCÍA

«LUIS ARANBURU MUSIKA ESKOLA» ERAKUNDE AUTONOMO LOKALAREN ESTATUTUAK

I. TITULUA

IZENA, HELBIDEA, IZAERA JURIDIKOA ETA HELBURUAK

1. artikulua.

Luis Aranburu Udal Musika Eskola —aurreantzean 'erakundea'— musikaren arloko irakaskuntza eta prestakuntzarako izaera administratiboko erakunde autonomo lokal gisa eratzten da, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 85.3.b) artikuluan eta horrekin bat datozen apirilaren 18ko 781/1986 Errege Dekretuan araututakoaren ildotik. Hezkuntzako udal eskumenak biltzen dituen arloari atxikita dago erakundea.

2. artikulua.

Gasteizko Hedegile kaleko 108.ean izango du egoitza.

3. artikulua.

1.- Erakundeak nortasun juridiko propioa izango du, eta erabateko gaitasun juridikoa eta jardutekoa, eta estatutu hauek eta arloko legediak arautuko dute.

2.- Erabateko gaitasun juridikoa izango du erakundeak bere helburuak betetzeko, legeak aintzat harturik, eta, horrenbestez, edozein motatako ondasunak eskuratu ahal izango ditu —diru-ordainetan edo doan—, eduki, errebindikatu, trukatu, zergapetu, besterendu edo alokatu —salbu eta Udalak atxikitzen dizkionak, zeinek jatorrizko kalifikazio juridikoa eutsiko baitiote eta ezingo baitira bestetarako baliatu—, eta orobat kontratuak egin, emakidak lortu, obra edo zerbitzuak ezarri eta ustiatu, bere burua behartu, edonolako kreditu- eta finantza-eragiketak formalizatu, finkatuta dauden errekurtsioak aurkeztu eta legeetan aurreikusitako ekintzak bideratu.

4. artikulua.

Musikaren irakaskuntza da erakundearen helburua, eta Gasteizko udalerrian musikaren kultura eta horren era guztietako adierazpenak sustatzearekin zerikusia duten jarduerak oro. Horri dagokionez:

1.- Zeregin hauek ditu erakundeak:

- a) Adin orotako zaleei prestakuntza musikal praktikoa eskaintzea, eta, horrez gain, aparteko bokazioa eta gaitasuna erakusten dutenei ikasketa profesionaletarako orientabidea eta prestakuntza ematea, eta, hartara, prestakuntza hori jasotzeko eskari sozialari erantzutea, adin guztietako pertsoneri irakaskuntza ez-arautua eskainiz.
- b) Musikaren onurako gerta litezkeen jarduerak antolatzea.
- c) Gasteizko udalerrian musikaren kultura bultzatu eta sustatzea.
- d) Estilo desberdinetako kontzertu eta ikuskizunetara joateko zaletasuna bultzatu eta espiritu kritikoa garatzea.

2.- Aurreko atalean adierazitako zeregin horiek betetze aldera, jarduera hauek bideratu ahal izango ditu Luis Aranburu Udal Musika Eskolak:

- a) Musikaren irakaskuntza arautu gabea antolatu eta eskaini, batez ere ikuspegi praktikotik, banakoek nahiz taldeek musika egin dezaten.
- b) Musika tradizio lokalak nahiz eskualdekoak bildu, sistematizatu eta zabaldu, Gasteizko eta Arabako musikari dagokienez erreferente izateko.

- c) Erakundea kokatua dagoen instalazioak egokitu, zaindu eta administratu.
- d) Instalazio horien erabilera koordinatu, baita instalazio horietan burutzekoak diren irakaskuntza-jardueren nahiz bestelakoen programak ere.
- e) Entitate publiko nahiz pribatuekin hitzarmenak formalizatu, bere helburuak betetzeko beharrezko diren ondasun higiezin nahiz higigarriak administratze aldera.
- f) Erakundearen zerbitzu guztiak antolatu.
- g) Entitate publiko eta pribatuei dirulaguntzak eskatu, eta horiek onartu.
- h) Mailegu- eta diruzaintza-eragiketak hitzartu, baita kauzio-eragiketak ere, aurrekontua betearazteko oinarrietan finkatutako mugekin.

II. TITULUA GOBERNU-, ADMINISTRAZIO- ETA ZUZENDARITZA-ORGANOAK

5. artikulua.

Hauk dira erakundearen gobernu-organoak:

1.- Kide anitzeko organoak:

A) Zuzendaritza-kontseilua

2.- Kide bakarreko organoak:

A) Lehendakaria

B) Lehendakariordea

C) Zuzendari nagusia

I. KAPITULUA ZUZENDARITZA-KONTSEILUA

6. artikulua.

1.- Gutxienez hiru kidek eta gehienez bederatzik osatuko dute zuzendaritza-kontseilua: berezko lehendakariak, zein Gasteizko Udaleko alkate karguan dagoena izango baita, eta udal talde bakoitza ordezkatzeko duen kide banak —udalbatzak zinegotzien artetik izendatuak—.

2.- Berezko lehendakariak benetako lehendakaria eta lehendakariordea hautatuko ditu kontseiluko kideen artetik.

3.- Erakundearen zuzendaritza-kontseiluaren bileretara zuzendari nagusia ere joango da —ahotsa izango du, ez botorik—.

4.- Kontseiluko idazkaria Gasteizko Udalekoa izango, edo hark ordezkotzen duen funtzionarioa, Zuzenbidean lizentziaduna.

5.- Kontseiluko kontu-hartzailea Gasteizko Udalekoa izango.

7. artikulua.

1.- Benetako lehendakariak, berezko lehendakariaren ordezkari gisa, haren eskumeneko zereginak egingo ditu.

Lehendakariordeak benetako lehendakaria ordezkatu du, hura bertan ez badago, gaixorik badago edo bestelako arrazoiengatik.

2.- Eskumen-eskuordetze guztiak, automatikoki egiten direnak salbu, administrazio-prozedura erkidearen eta sektore publikoko erregimen juridikoaren arloan indarrean dagoen legedian aurreikusten diren formalitateak betetzen direlarik eman beharko dira.

8. artikulua.

Zeregin hauek dagozkio zuzendaritza-kontseiluari:

1.- Erakundearen jarduera- eta kudeaketa-estrategia zehaztea, eta urteko oroitidazkia onestea.

2.- Ohiko bilkuren maiztasuna erabakitzea, baita apartekoak noiz egin ere. Eztabaidatu eta erakundearen izenean erabakiak hartzea, eta zuzendaritzari helburuak zehaztea.

3.- Edonolako epaitegi, auzitegi, aginte, administrazio eta korporazioen aurrean edozein ekintza eta errekurso aurkezteko erabakia hartzea, erakunde autonomoaren ondasunak eta eskubideak aldezteko, eta, era berean, egoki denean, atzera egin edo amore ematea, toki-erregimenaren legedian xedatutakoaren ildotik, Udalbatza jakinaren gainean jarritz.

4.- Udalbatzari estatutu hauek indargabetu, aldatu nahiz zabalteko proposamena egitea.

5.- Erakunde autonomoak ematen dituen zerbitzuen araudiak, ordenantzak eta funtzionamendu-arauak onesteko nahiz aldatu, zabaldu edo indarrean jartzeko proposamena egitea udalbatzari, baita kontseiluaren beraren funtzionamendu-arauak ere, behar izanez gero.

6.- Bestelako administrazio, erakunde eta entitateekin nahiz edozein pertsona fisiko edo juridikorekin sinatzekoak diren hitzarmenak, itunak eta bestelako elkarlan- eta lankidetzatresnak onestea.

7.- Era guztietako kontratuak esleitzea, lehendakariari aitortutako eskumenak gainditzten dituztelarik, eta horiei dagozkien gastuak aldez aurretik baimentzea.

Administrazio publikoen kontratuen arloko legedian eta erregimen lokalaren arloan aplikatzeko den legedian xedatzen dena aintzat harturik egingo da kontratazioa. Horretarako —zenbatekoagatik nahiz iraupenagatik lehendakariari arlo horretan aitortutako eskumen-esparrua gainditzten delarik—, zuzendaritza-kontseilua izango da kontratazio-organoa.

8.- Gastuak baimendu eta xedatzea, aurrekontua betearazteko arauan finkatutako eskumenen muga barruan.

9.- Udalari erakundearen hurrengo ekitaldirako aurrekontuaren proposamena igortzea, baita, halakorik izanez gero, bertan indarrean egongo diren tasa eta prezio publikoena ere.

10.- Erakundearen urteko kontuen proposamena onestea, urtero, eta Udalari igortzea, behin betiko onespena eman diezaion.

11.- Ondasun higiezinak erabiltzeari dagokionez, toki-erakundeen ondasunak arautzen dituen araudira egokitu beharko du horien erregimen juridikoak.

12.- Erakunde autonomoaren ondasunak jaso, bere kargu hartu, kudeatu eta administratzea, edozein delarik ere horien titulua eta aipatu diren mugekin, baita dohaintza, dirulaguntza eta legatuetatik datozenak ere. Era berean, erakunde autonomoaren ondasun eta eskubideen inbentarioa onetsi, urtero zuzendu eta eguneratuta mantentzea, eta zinegotzi edo arlo eskudunari bidaltzea.

13.- Udalbatzari epe laburreko nahiz luzeko mailegu-eragiketak hitzartzeko proposamena egitea, baimendu ditzan, baita diruzaintzako eragiketak ere, Ogasuneko zinegotzi ordezkariak txostena egin ondoren, Toki Ogasunak arautzen dituen legedian ezarritako baldintzak eta mugak aintzat harturik.

14.- Bere aginpide eta eskumenak, osorik nahiz partez, lehendakariari, edozein kideri edo zuzendariari eskuordetzea.

15.- Zergak, prezio publikoak eta zuzenbide publikoko gainerako ondare-prestazioak ezarri nahiz arautzeko proposamena egitea udalbatzari.

16.- Erakundearen lanpostuen zerrendaren proposamena onestea, organo eskudunak onetsi dezan.

9. artikulua.

1.- Zuzendaritza-kontseiluaren bilkurak hiru eratakoak izan daitezke:

- a) Ohikoak
- b) Apartekoak
- c) Aparteko eta premiazoak

2.- Maiztasuna aldez aurretik finkatua dutenak dira ohiko bilkurak. Zuzendaritza-kontseiluaren beraren erabakiz finkatuko da maiztasun hori, udalbatza bakoitza eratzeko bilkura egin ondorengo bi hilabeteetan deitu beharko den aparteko bilkuran. Ohiko bilkuren gai-zerrendan galde-eskeen atala sartuko da beti.

3.- Lehendakariak halako izaerarekin deitzen dituenak izango dira aparteko bilkurak, dela bere ekimenez, dela botoa emateko eskubidea duten kontseiluko kideen gutxienez laurden batek eskatuta —kide bakoitzak ezingo ditu urtean aparteko hiru bilkura baino gehiago eskatu—. Azken kasu horretan, aparteko bilkura ezingo da hamabost egun baliodun baino gehiago atzeratu, eskatzen den egunetik, eta gaia ezingo da ohiko bilkura baten edo gai gehiago dituen aparteko beste baten gai-zerrendan sartu, deialdia eskatu dutenek berariaz baimendu ezean.

Lehendakariak ez badu eskatutako aparteko bilkura adierazitako epean deitzen, deialdia besterik gabe egindakotzat joko da, epe hori bukatu ondorengo hamargarren egun balioduneko hamabietarako, eta hala jakinaraziko die kontseiluko idazkariak kide guztiei, aipatutako epea bukatzen den egunaren biharamunean. Lehendakaria edo hura legez ordeztu behar duena bertan ez badaude, bertaratutako kideen artetik zaharrena izango da bilkuraren buru.

4.- Jorratu beharreko gaia edo gaiak premiazoak izanik gutxienez bi egun balioduneko tartearekin aparteko bilkura deituz ez dagoelarik lehendakariak deitzen dituenak izango dira premiazo aparteko bilkurak. Halakoetan, kontseiluak bilkura egiteko premia dagoen erabakitzea izango da gai-zerrendako lehen puntua.

Premiazkotzat jotzen ez bada, bilkura bukatutzat joko da.

5.- Zuzendaritza-kontseiluaren ohiko eta aparteko bilkuretarako deialdiak lehendakariaren aginduz egingo dira, gutxienez bi egun baliodun lehenago, eta, gai-zerrenda erantsi beharko zaie, non ageriko baitira jorratu beharreko gaiak, baita bilkuran onetsi beharreko akta edo aktak ere, eta eztabaidarako beharrezko den dokumentazioa, ahal delarik.

6.- Bilkurako dosierak eskuragarri edukiko dituzte zuzendaritza-kontseiluko kideek erakunde

autonomoaren idazkaritzan, deialdia egiten den egunetik bertatik, aztertu eta kontsultatzeko.

7.- Organoa balio osoz eratzekotan —bilkura egin, gaiak eztabaidatu eta erabakiak hartzeko—, ezinbestekoa izango lehendakariaren eta idazkariaren edo horiek ordeztzen dituztenen asistentzia, bertatik bertara nahiz distantziara, eta gutxienez kideen erdiarena. Bilkura osoan eutsi beharko zaio quorumari. Kide anitzeko organoko idazkaria eta kide guztiak —edo ordeztzen dituztenak— bilduta daudelarik, bertatik bertara nahiz distantziara, balio osoz eratu ahal izango dira bilkurak egiteko, erabakitzeko eta erabakiak hartzeko kide anitzeko organo gisa, aldez aurretik deialdia egiteko beharrik gabe, baldin eta kide guztiek hala erabakitzen badute. Ezingo da eztabaidatu edo erabaki gai-zerrendan sartu ez den gairik, salbu eta kide anitzeko organoko kide guztiak bertan badaude eta gaia —gehiengoaren aldeko botoekin— premiazkotzat jotzen bada.

8.- Boto-gehiengoz hartuko dira erabakiak, nahiz eta kideen botoak haztatuak izango diren, bakoitzaren talde politikoak udalbatzan duen ordezkapen-mailarekiko erlazio zuzenean.

9.- Organoko kideek kontrako botoa ematen badute, edo abstenitu egiten badira, ez dute beren gain hartuko erabakietatik erator litekeen erantzukizunik.

10.- Interes legitimo baten titular direla egiaztatzen dutenek kide anitzeko organoko idazkariarengana jo ahal izango dute, haren erabakien ziurtagiria egin diezaien. Bitarteko elektronikoen bidez emango da ziurtagiria, salbu eta interesdunak berariaz kontrakoa adierazten badu eta administrazioekiko harremanetarako modu hori baliatzeko obligaziorik ez badu.

10. artikulua.

1.- Zuzendaritza-kontseiluaren funtzionamenduaren gainean estatutuetan berariaz aurreikusi gabekoetan kide anitzeko organoen erregimen juridikoa arautzen duten arauetako xedapenak aintzat hartuko dira.

II. KAPITULUA LEHENDAKARIA

11. artikulua.

Zuzendaritza-kontseiluko lehendakariaren zereginak izango dira:

1.- Zuzendaritza-kontseiluaren bilkuren deialdia egin, horien buru izan, bertan behera utzi nahiz bukatutzat jotzea, eztabaidak zuzentzea eta berdinketak kalitateko botoarekin erabakitzea.

2.- Zuzendaritza-kontseiluaren erabakiak betetzera premiatzea eta egiten den zaintzea.

3.- Erakundearen aurrekontuen aurreproiektua egitea, zuzendari nagusiaren, kontu-hartzailearen eta horretarako izendatutako langileen laguntzarekin.

4.- Gastuak baimendu eta xedatzea, baita kontratazioak ere, bere eskumeneren mugen barruan, 15.000,00

euro arte, BEZ bereiz.

5.- Obligazioak onartu eta likidatzea eta ordainketak agintzea.

6.- Erakundeari betebeharrak dakartzkion egintzak eta agiriak sinatzea.

7.- Ondasun eta eskubideak eskuratu nahiz besterentzea, toki-erregimenaren arloan indarrean dagoen legediaren ildotik.

8.- Auzitegi, epaitegi, administrazio, korporazio, agintari, notario eta partikularren aurrean erakunde autonomoa ordezkatzeko, ordezkapen horretarako manamenduak eta ahalmenak besteri ematea, eta bidezko den kasuetan hura bere gain hartzea.

9.- Bere eskumeneko gaietan ekintza judizial eta administratiiboak bideratzea, eta erakunde autonomoa aldeztzea, baita beste organo bati eskuordetuak badizkio ere. Era berean, premiazko egoeretan, zuzendaritza-kontseiluaren eskumeneko gaietan ahalmen horiek baliatzea —egiten duen lehen bilkuran eman beharko dio hari horren berri, berretsi dezan—.

10.- Premia- edo larrialdi-egoeretan, beharrezko diren premiazko erabakiak edo atzeraezinak direnak hartzea —egiten duen lehen bilkuran eman beharko dio zuzendaritza-kontseiluari horren berri, behin betiko ebatzi dezan dena delako kontua—.

11.- Dokumentuak, eskriturak eta polizak izenpetzea.

12.- Kreditu-eragiketak hitzartzea, toki-ogasunen arloan indarrean dagoen legediaren eta Aurrekontuak Betetzeko Udal Araudiaren arabera, zuzendaritza-kontseiluak proposatu eta udalbatzak baimendu ondoren.

13.- Erakundearen zerbitzu eta unitateen antolakuntza-egitura onestea, baita dagokion aurrekontu-zuzkidura ere, indarrean dagoen araudiaren ildotik eta leudekeen aurrekontu-mugen barruan.

14.- Ordainketak agintzea eta, diruzainarekin eta kontu-hartzailearekin modu mankomunatuan, ordaintzeko aginduak sinatzea.

15.- Erakundea gobernatzeko eta beraren interes bereziak administratzeko eskumenak oro baliatzea, berariaz bertako beste organo bati esleituta ez daudelarik, baita zuzendaritza-kontseiluak eskuordetzen dion beste edozein ere.

12. artikulua

Lehendakaria ordezkatzeko erregimena: oporretan bada edo gaixorik badago, lehendakariordeak hartuko ditu bere gain haren zereginak. Ordezkapen hori ezinezkoa gertatuz gero, alkate zereginak burutzen dituenak hartuko ditu bere gain zeregin horiek, Luis Aranburu Musika Eskolako berezko lehendakari gisa.

III. KAPITULUA IDAZKARIA

13. artikulua.

Idazkariari dagokio kide anitzeko organoaren jardueren legezotasun formal eta materiala zaintzea, eta haren jarduerak ziurtatzea, eta eratzeko eta erabakiak hartzeko prozedura eta arauak errespetatzen direla bermatzea.

IV. KAPITULUA KONTU-HARTZAILEA

14. artikulua.

Eskumen hauek izango ditu kontu-hartzaileak:

- 1.- Zuzendari nagusiari aurrekontu orokorraren aurreproiektua egiten laguntzea.
- 2.- Ekonomi-, finantza- eta aurrekontu-kudeaketaren barne kontrola eta fiskalizazioa egitea.
- 3.- Kontabilitatea, diruzaintza eta diru-bilketa gainbegiratzea.
- 4.- Kontseiluaren bilkuretara joatea, ahotsa bai baina botorik gabe, kideei aholkularitza eskaintzeko, eskatzen diotelarik.

V. KAPITULUA ZUZENDARI NAGUSIA

15. artikulua.

1.- Zuzendaritza-lanpostua izango da zuzendari nagusiarena, eta, egitekoei dagokienez, estatutu hauetan eta zuzendaritza-kontseiluak ematen dituen arauetan xedatzen denaren arabera jokatu beharko du. Udaleko lanpostuen zerrendan zuzendari nagusientzat finkatuta dagoena izango da beraren erregimen juridikoa.

2.- Zuzendari nagusia ohiko zuzendaritza-organo gorena izango da, eta Udaleko gainerako zuzendaritza-organoekin baliatzen den prozedura bera baliatuko da izendatu nahiz kargutik kentzeko.

3.- Administrazio publikotik datozenen berezko egoera administratibo edo laborean aplikatzekoak diren arauetan onartzen diren eskubideak gorabehera, zuzendari nagusiaren karguan jarduteak ez du inongo eskubiderik emango erakundearen eta hartan diharduenaren artean lotura laboral edo administratibo egonkorra finkatze aldera.

4.- Administrazio publikoetako karrerako edo lan-kontratupeko funtzionario bat edo sektore pribatuko profesional bat izango da titularrak —goi-mailako tituluduna, eta, bigarren kasuan, bost urtetik gorako esperientzia profesionala duena—. Udal korporazioko inongo kidek ezingo du erakundeko zuzendari nagusiaren karguan jardun.

16. artikulua.

Erakunde autonomoko zuzendari nagusiaren zereginak izango dira, zuzendaritza-kontseiluaren jarraibideen eta lehendakariaren aginduen ildotik:

- 1.- Erakundea zuzentzea.
- 2.- Erakundearen estrategia globala diseinatzea.
- 3.- Erakunde autonomoan prozesuen bidezko kudeaketa ezartzea, baita kalitate-politikaz ere, kudeaketaren efizientzia helburu.

- 4.- Prezioen politika eta aurrekontu-politika proposatzea.
- 5.- Erakundearen giza baliabideak kudeatu eta langileak zuzentzea.
- 6.- Erakunde autonomoari esleitutako baliabideak ongi erabil daitezten arduratzea.
- 7.- Gasteizen musikaren kulturaren zabalkundea bultzatzea, Musika Eskolaren esparruan.
- 8.- Erakunde autonomoko lehendakariari aurrekontuaren aurreproiektua egiten laguntzea.
- 9.- Zuzendaritza-kontseiluaren bilkura guztietara joatea, ahotsa bai baina botonik gabe.
- 10.- Lehendakariari laguntzea, gomendatzen zaizkion kudeatze-lanak eginez.
- 11.- Zuzendaritza-kontseiluaren erabakiak arduraz eta garaiz betetzea, lehendakariaren gainbegiratze-lanak gorabehera.
- 12.- Burututako jardueren oroitidazkia egitea, urtero, eta zuzendaritza-kontseiluari proposatzea, onets dezan.
- 13.- Erakunde langileriaren eta lanpostu-zerrenda edo -katalogoaren proposamena egitea.
- 14.- Kontseiluak eta lehendakariak hartutako erabaki eta ebazpenak betearazteaz arduratzea, prestatu eta tramitatzea.
- 15.- Erakunde ordezkatzea, kontseiluaren erabakia nahiz lehendakariaren eskuordetzea dela medio.

III. TITULUA ERAKUNDEAREN ONDAREA ETA OGASUNA

17. artikulua.

- 1.- Hauek osatuko dute erakundearen ondarea: bere helburuak betetzeko Udalak atxikitzen dizkion ondasunek eta bere funts propioen kontura erosten dituenek.
- 2.- Erakundeari atxikitako ondasun higiezina da Musika Eskolaren eraikina —Hedegile kalea, 108 behea—.
- 3.- Jatorrizko kalifikazio juridikoari eutsiko diote atxikitako ondasun eta eskubideek, eta atxikipenean zehazten diren helburuak betetzeko onik zaindu eta erabiltzeko ahalmena baino ez du izango erakunde autonomoak.
- 4.- Ondasunak eta dagozkien ondare-eskubideak eskuratzea adosten delarik, inplizituztat joko da erakunde autonomoaren helburuei atxikitzen zaizkiela.
- 5.- Ondasun horiek onik zaindu, egokiro kudeatu eta aldezteari dagokionez, jabari publikoaren inguruan legez ezarrita dauden eskubide eta eskumenak oro baliatu ahal izango ditu erakundeak.
- 6.- Ondasun eta eskubide propio nahiz atxikien inbentarioa egin beharko du erakundeak, eta eguneratuta eduki, suntsikorak direnak salbu. Inbentarioa urtero berrikusiko da, behar izanez gero, abenduaren 31 erreferentziat hartuta, eta zuzendaritza-kontseiluari aurkeztu beharko zaio, onets dezan.
- 7.- Gai horri dagokionez estatutuetan aurrekusi gabeko kontuetan administrazio publikoaren ondarearen araudia aplikatuko da.

18. artikulua.

Iturri hauetatik etorri ahal izango dira erakundearen baliabide ekonomikoak:

- a) Tasa eta prezio publikoak.
- b) Zuzenbide pribatuko bere ondaretik eta bestetik eskuratutako diru-sarrerak.
- c) Gasteizko Udalak bere aurrekontuen kontura helburu horretarako egiten dituen ekarpenak, halakorik bada.
- d) Edozein erakunde publiko nahiz pribatutik jasotako dirulaguntza eta transferentziak.
- e) Kreditu-eragiketen emaitza.
- f) Zuzenbide publikoko gainerako prestazioak.

19. artikulua.

1.- Aurrekontu propioa izango du erakundeak, zein, toki-ogasunak arautzen dituen legedian aurreikusitakoaren ildotik, Udalaren aurrekontu orokorrean sartuko baita.

2.- Lehendakariak taxutuko du erakundearen aurrekontua. Zuzendaritza-kontseiluak onartu eman ondoren, Udalari igorriko zaio, onets dezan.

3.- Kredituak eta horien aldakuntzak, baita gastuen aurrekontuan ageri direnak gauzatu eta likidatzea ere, toki-ogasunak arautzen dituen legedian eta Aurrekontuak Betetzeko Udal Araudian finkatutakora egoki beharko dira.

4.- Toki-ogasunak arautzen dituen legedian ezarritakoaren arabera jokatu beharko du erakundeko diruzaintzak. Udal diruzaintzak zainduko ditu eskolaren funtsak, zuzenean nahiz eskolaren izenean — behar bezala ikuskaturik— irekitako banku-kontuetan.

Titulazio egokia duen eta gaituta dagoen udal funtzionario baten edo eskolako langile baten gain utzi ahal izango da diruzaintzaren ohiko kudeaketa, diruzainaren eskuordetzea dela medio.

5.- Kontabilitate publikoaren erregimenaren mende egongo da erakundea, toki-ogasunak arautzen dituen legedian ezarritako moduan.

6.- Erakundearen egoera eta kontuen berri lehenik eta behin lehendakariak emango dio zuzendaritza-kontseiluari, jakinaren gainean egon dadin. Egoera eta kontu horiek Udalari igorriko zaizkio, toki-ogasunak arautzen dituen legedian ezarritako epearen barruan —bertan aurreikusten diren tramiteak egin ondoren—, organo eskudunak onets ditzan.

20. artikulua.

1.- Administrazio publikoen kontratazioaren arau orokorreak arautuko dute erakundearen kontratazioa.

2.- Organo eskudunak baimenduko du kontratuak egitea horien zenbatekoak hark aldeztu aurretik finkatutakoa gainditzen duelarik.

**IV. TITULUA
ERREGIMEN JURIDIKOA**

21. artikulua.

Erakundearen funtzionamenduari dagokionez aurreko artikuluetan aurreikusi gabekoetan toki-erregimeneko xedapenen arabera jokatu beharko da, eta administrazio-prozedura erkideari buruzko legediaren arabera.

22. artikulua.

1.- Erakundeko gobernu-organismoek —zeinek bere eskumenen esparruan— ematen dituzten ebazpenen eta hartzen dituzten erabakien kontra aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango da.

2.- Erakundearen behin betiko egintza eta erabakien kontra —halakotzat joko dira berraztertze errekurtsoak ebazten dituztenak, berariazkoak nahiz ustezkoak izan, baita gobernu-organismoek zeinek bere eskumenen esparruan emandakoak ere, horien kontra delako errekurtsoa aurkeztu ez bada—, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da, legedian finkatutako moduan eta epeetan.

V. TITULUA
GIZA BALIABIDEAK

23. artikulua.

Behar diren langileak izango ditu erakundeak, funtzionarioak nahiz lan-kontratudunak —Gasteizko Udaleko organo eskudunak onesten dituen langileria organikoan eta lanpostuen zerrendan zehaztuko dira kopurua, kategoriak eta zereginak—.

24. artikulua.

1.- Hauek osatuko dute erakundearen langileria:

- Destinoa erakundearen duten erakundeko nahiz Udaleko funtzionarioak.
- Lan-zuzenbidearen erregimeneko langileak.
- Zuzendaritza-langileak.

25. artikulua.

Erakundeko langileak, baita unean uneko premiei erantzuteko behar direnak ere, administrazio publikoen zerbitzura diharduten langileen erregimena arautzen duten arau beren mende egongo dira, langileriar, lanpostuen zerrendari, ordainsariei, hautaketari, atxikipenari, lanpostu-hornikuntzari, prestakuntzari eta egoera administratiboari dagokienez, berdintasun-, merezimendu-, eta gaitasun-printzipioen arabera.

V. TITULUA
ERAKUNDEA DESEGITEA

26. artikulua.

Arrazoi hauengatik geratuko da deseginda erakundea:

- Helburua burutu duelako, edo, zein xede publikorekin eratu zen, hori gauzatzeko ezintasun nabarmena ageri duelako.
- Gasteizko Udalaren erabakia dela medio —Udalak berak erabakita nahiz zuzendaritza-kontseiluak eskatuta—.

27. artikulua.

Erakundea desegitea erabakitzen delarik, Udala izango da oinordeko unibertsala.

AZKEN XEDAPENA

Udalbatzak onetsi eta ALHAO argitaratzen direlarik jarriko dira indarrean estatutu hauek, eta berariaz aldatu edo indargabetu bitartean jarraituko indarrean.

Guztiek jakin dezaten ematen da argitara, Vitoria-Gasteizen, 2023ko uztailearen 18^a.